

# DONOSTIAKO ALKATE-LEHENDAKARI JAUNARI

## DONOSTIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA

AGUSTIN RODRIGUEZ APAOLAZA , \_\_\_\_\_ DNI zenbakia duenak, bere izenean eta DONOSTIAKO EZKER ABERTZALEKO HAUTETSION izenean, jendaurrean dagoen Donostiako Hiri Antolatzeko Plan Orokorrari ondorengo alegazioa aurkezten diogu:

- 2008ko maiatzaren 19ko Donostiako Udalbatzan Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari hasierako onarpena eman zitzaiola.
- Hasierako onarpenaren erabakia 2008ko ekainaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta proiektua jendaurrean, hiritarrok alegazioak aurkez ditzagun, irailak 15arte jarri dela.
- Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra osatzen duen dokumentazioa Udaleko Hirigintza Saileko bulegoan nahiz Donostiako web orrialdean ikusgai dagoela.
- Dokumentazio osoa (Memoria, Hirigintza arauak, Auzoz auzoko Plana, ..... ) gazteleraz soilik dagoela ikusgai. Plan Orokorra osatzen duten dokumentuen artean euskaraz eskuragai den bakarra “Hirigintza Arau Orokorra” deiturikoa dela.
- Donostiako Udalean indarrean dagoen “Euskararen erabilpena normalizatzeko arauak”, besteak beste, honako hau xedatzen dutela:

- **1. artikulua        *Hizkuntza ofiziala***  
*Euskara. Euskal Herriaren berezko hizkuntza dena, Donostiako Udaleko Erakunde Autonomoetako eta udalerriko hizkuntza ofiziala da, . gaztelania bezala.*
- **2. artikulua        *Aplikazio-esparrua***  
*Aplikazio orokorra izan dezaten eman diren eta indarrean dauden lege nahiz arauen era Arauteria honetako xedapenen arabera erabiliko dute euskara Donostiako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek, nahiz bere barne funtzionamenduan nahiz herritarre kiko hala organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan, azken helburua euskara ren erabilerearen normalizazioa delarik.*
- **3. artikulua        *Lehentasunezko tratamendua gaztelaniarekiko berdintasun erreala lortzeko***  
*Euskara era gaztelania ofizialak badira ere, hainbat eta hainbat urtetan euskarak jasan duen zokoratze prozesuaren ondorioz, benetako berdintasunetik urrun daude. Hortaz, eta bi hizkuntza ofizialen benetako berdintasuna lortzeko xedez, lehentasunezko tratamendu berezitua emango dio Donostiako Udalak euskarari.*
- **4. artikulua        *Herritarren hizkuntz eskubideak***  
*Euskal Herriko hiritar guztiek dute bi hizkuntza ofizialak ezagutu ez ezik erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz, Donostiako Udalak, indarreango legeriak oro har onartutakoen ildotik honako hizkuntz eskubideak aitortzen dizkie espresuki hiri tarrei.*
  - a) *Udalarekin eta bere menpeko Organismo orekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.*
  - b) *Udalak antolatu edo/eta gestionaturiko ikasketak oro bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.*
  - c) *Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz zein gaztelaniaz hartzeko eskubidea.*
  - d) *Udaleko edozein bileratan euskaraz zein gaztelaniaz jarduteko eskubidea.*

- Halaber, **azaroaren 24ko 10/1982 LEGEak**, Euskararen erabilpena arautzen duenak, honako hau jaso zuen:

**5. atala:** 2.- *Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:*

a) *Arduralaritzarekin eta Autonomia-Elkartean kokatutako edozein Ihardutze-Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.*

- o Aipatu atalak eskubidearen alde aktiboa zein pasiboa hartzen ditu kontuan. Horrela, herritarrari alegazioak euskaraz egiteko eskubidea aitortzen bazaio ere, hots, eskubidearen alde aktiboa; dokumentu horiek guztiek gaztelaniaz egonik, ez zaio bermatzen administrazioekin euskaraz jarduteko duen eskubidearen alde pasiboa; hots, administrazioa herritarrari euskaraz zuzentzea. Gure kasuari dagokionez, eskubidearen alde pasiboa bermatzeko ezinbestekoa da dokumentazio guztia euskaraz ere egotea.

**8. atala:** *Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko herri-agintariek eskuhartu dezateneko egintza guztiak, eta bai arduralaritza-mezu eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan egon beharko dute, doakienek berariz Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizialetatik bat aukeratu dezate-nean salbu.*

- o Herritar guztiei begira jarri beharreko dokumentazioa dela kontuan harturik, ez dago ulertzerik hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabili izanaren arrazoia. 8. atalak agertu bezala, norbanakoari aitortzen zaio hizkuntza batean jasotzeko eskubidea, hala eskatuz gero. Udalak jendaurrean jarritako dokumentazioa ez da parametro horietan sartzen.

- Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra soilik gaztelera egoteak, aipatutako araudian jasotako xedapenak eta legeak urratzen dituela, ondorioz donostiarron hizkuntza eskubideak ez dira bermatzen.
- Mota honetako Plan Orokor batek, honen onarpenak ekar ditzaken ondorioak direla eta, donostiar guztiengana iristeko beharrezkoak diren neurriak hartzea eskatzen du. Are gehiago, araudia berak, hiritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar direla agintzen duenean.
- Beraz, kasu honetan, informazioa ez da jarri donostiar guztion esku.

Hori guztia dela eta, jendaurrean jarritako dokumentazioa gaztelera hutsez eskuragai egoteak, jendaurrea jartzearen izapidea baliogabetu egiten duela, araudia bera eta donostiarron hizkuntza eskubideak urratzen dituelako.

Donostiako Ezker Abertzaleko Hautetsiok Plan Orokorrari alegazioak aurkeztuko ditugula, baina hizkuntza eskubideen urraketa onartezin honen ONDORIOZ, zera eskatzen dugu :

**Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra osatzen duen dokumentazio guztia euskaraz ere eskuragai jarri arte jendaurrean jartzeko izapidea ez da betetzat emango.**

**Hori dela eta, dokumentazioa hiritar ororentzat euskaraz eskuragai jartzen den unean, eta bakarrik orduz geroztik, baliozkotzat emango da jendaurrean jartzeko izapidea.**

Donostian, 2008ko irailaren 11

Sinatua: Agustín Rodríguez.